



OINARRIAK: 2019KO SAN ANDRES AZOKA

1. Helburua.

San Andres azokaren helburua Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako produktu hauen **erakusketa, lehiaketa eta salmenta** egitea da: barazkiak, frutak, Euskal Labela duen ezti, ardi-gazta eta eskuz egindako ogia.

Erakusteko eta saltzeko –ez ordea lehiaketarako-goiko produktu horiez gain, aipaturako lurralde horietako txakolina eta loreak ere egon daitezke eta baita Deba Beheko nekazaritza-ustiatagietako gaztak ere.

2. San Andres Azokan parte hartzeko bete behar diren baldintzak.

San Andres Azokako parte hartzaileek jarraian aipatzen diren baldintza orokorrak bete behar dituzte:

- Dagokion epigrafean alta emanda eta jarduera ekonomikoko zergaren ordainketa egunean edukitzea, edo, zerga hori ordaintzetik salbuetsia egonez gero, Zergapekoen Erroldan alta emandakoa izatea.
- Gizarte Segurantzarekin dituen obligazioak egunean edukitzea.
- Zerga alorrean dituen obligazioak egunean edukitzea.
- Udalarekin dituen zerga-obligazioak ordainduta edo egunean edukitzea.
- Erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuta edukitzea, burutzen den merkataritza-jardueraren arriskuak estaliko dituen aseguruia.
- Saltzeko dauden produktuei aplikatutako arau berezietan ezartzen diren baldintzak betetzea.
- Europako Erkidegotik kanpoko beste herrialde batzuetakoek egoitza-baimena eta lan-baimena eduki behar dute.

Era berean, produktu bakoitzari dagozkion honako baldintza hauek bete beharko dira:

- **Fruta eta barazkiak:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea).
- **Ogia:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta osasun erregistroa. Eskuz egindako gozokiak ere ekarri gero, dagokion osasun erregistroa izatea.
- **Ardi gazta:** Idiazabal gazta jatorri-deituran erregistratuta egotea edo Artzain Gazta elkartearen bazkidea izatea.
Kategoria honetan izena ematen duten parte-hartzaile guztiak derrigortuta egongo dira lehiaketan parte hartzera.
- **Eztia:** Euskal Labela.

BASES: FERIA SAN ANDRES 2019

1.- Objeto.

La feria de San Andrés tiene como objeto la **exposición, concurso y venta** de los siguientes productos de Gipuzkoa, Vizcaya, Alava y Navarra: verduras, frutas, miel con Eusko Label, queso de oveja y pan artesanal.

Además en la sección de **exposición y venta** podrán tomar parte los productos txakolí y flores, de los mencionados territorios y quesos de explotaciones agrarias del Bajo Deba.

2. Requisitos a cumplir para participar en la Feria de San Andrés.

Los/as participantes en la Feria de San Andrés tendrán que cumplir con los siguientes requisitos de carácter general:

- Estar dado/a de alta en el epígrafe correspondiente y al corriente en el pago del Impuesto de Actividades Económicas o, en caso de estar exento, estar dado de alta en el censo de obligados tributarios.
- Estar al corriente en sus obligaciones con la Seguridad Social.
- Estar al corriente en sus obligaciones tributarias.
- Estar al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.
- Tener contratado seguro de responsabilidad civil con cobertura de los riesgos de la actividad comercial desempeñada.
- Cumplir los requisitos que se establecen en las reglamentaciones específicas aplicables a los productos que se tengan en venta.
- Disponer de autorización de residencia y trabajo en caso de nacionales de terceros países.

De igual manera deberán cumplir con los siguientes requisitos específicos de cada producto:

- **Fruta y verdura:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde).
- **Pan:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde) y registro sanitario oportuno. Si presentaran repostería artesanal, contar con el registro sanitario oportuno de repostería.
- **Queso de oveja:** estar en el registro de Denominación de Origen de Queso de Idiazabal o estar asociado en Artzain Gazta.
Los/as inscritos/as en esta categoría estarán obligados/as a participar en el concurso.
- **Miel:** Eusko Label.



- **Txakolina:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta osasun-erregistroa.
- **Loreak:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea).
- **Deba Beheko gaztak:** nekazaritza-ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta osasun-erregistroa.
- **Poteetan sartutako produktu eta baserriko kontserben** kasuan, nekazaritza ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta dagokion osasun erregistroa izatea.
- **Txakoli:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde) y registro de sanidad oportuno.
- **Flores:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde).
- **Quesos del Bajo Deba:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde) y registro sanitario.
- En caso de presentar **productos embotados y/o conservas caseras**, además de disponer de tarjeta agraria (tarjeta verde), tener el oportuno registro sanitario.

3. Eskakerak egiteko epea eta lekua:

Eskakerak eta agiriak aurkezteko epea **2019ko urriaren 21etik azaroaren 8ra (biak barne) izango da.**

Eskakerak aurkezteko bideak:

- **Presentzialki:** PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan. Untzaga Plaza 1 (beheko solairua), Eibar.
- **Postaz:** helbidea:

Eibarko Udala.
PEGORA (San Andres Azoka)
Untzaga Plaza 1
20600 Eibar-Gipuzkoa-

- **Elektronikoki:** www.eibar.eus. Eskatera elektronikoki egiteko, derrigorrez, ziurtagiri digital bat edo B@K-Q eduki behar dituzu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- San Andres Azokan parte hartzeko eskaera behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).
- Eskatzailearen NANA, IFZ edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).
- Azokan aurkeztuko den produktuaren fitxa behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).
- **Fruta eta barazkiak:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea).

3. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes y documentación será del **21 de octubre al 8 de noviembre de 2019 (ambos inclusive).**

Las solicitudes se podrán presentar:

- **Presencialmente:** en PEGORA, Oficina de Servicio a la Ciudadanía. Untzaga Plaza 1 (planta baja), Eibar.
- **Por correo postal:** dirección:

Eibarko Udala.
PEGORA (San Andres Azoka)
Untzaga Plaza 1
20600 Eibar-Gipuzkoa-

- **Electrónicamente:** www.eibar.eus. Para realizar la solicitud electrónicamente, es necesario disponer de un certificado digital o de la B@K-Q

Documentación a presentar:

- Solicitud de participación en la feria de San Andrés debidamente cumplimentada (disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.eus).
- DNI, NIF o documento equivalente de el/la solicitante.
- En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...).
- La ficha del producto que se presenta a la feria debidamente cumplimentada (disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.eus).
- **Fruta y verdura:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde).

- **Ogia:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta osasun erregistroa. Eskuz egindako gozokiak ere ekarriz gero, dagokion osasun erregistroa.
- **Ardi gazta:** Idiazabal gazta jatorri-deituan erregistratuta egotearen edo Artzai Gazta elkartearen bazkidea izatearen egiaztagiria.
- **Eztia:** Euskal Labela.
- **Txakolina:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta osasun erregistroa.
- **Loreak:** nekazaritzako ustiategiaren txartela (txartel berdea).
- **Deba Beheko gaztak:** nekazaritza-ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta osasun-erregistroa.
- **Poteetan sartutako produktu eta baserriko kontserben** kasuan, nekazaritza ustiategiaren txartela (txartel berdea) eta dagokion osasun erregistroa.
- **Pan:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde) y registro sanitario oportuno. Si presentaran repostería artesanal, el registro sanitario oportuno de repostería.
- **Queso de oveja:** justificante del registro de Denominación de Origen de Queso de Idiazabal, o de estar asociado en Artzai Gazta.
- **Miel:** Eusko Label.
- **Txakoli:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde) y registro sanitario oportuno.
- **Flores:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde).
- **Quesos del Bajo Deba:** tarjeta de explotación agraria (tarjeta verde) y registro sanitario.
- En caso de **productos embotados y/o conservas caseras**, tarjeta agraria (tarjeta verde) y el oportuno registro sanitario.

OHARRA: Nahikoa izango da Nekazaritza Ekologikoaren etiketa aurkeztea azokako edozein produktutarako.

Eskaera postaz eginez gero, adierazitako dokumentuen fotokopia bidali beharko da.

4. Adjudikazioa.

Postuen adjudikazioa organo eskudunak onartuko du, Kultura sailaren proposamena jaso ondoren, Azokarako prestatuta dauden metroak eskaera guztiei erantzuteko adina balira, adjudikazioa zuzenean egingo da. Bestela zozketa egingo litzateke.

5. Araudiak.

5.1.- Eibarko Udalak postuak nola eta non kokatu erabakiko du. Postuek azaroaren 30ean, goizeko 9etarako prest egon behar dute, ordu horretarako jarrita ez dagoena ez baita onartuko. Arratsaldeko 3retarako jasota egon beharko dute postu guztiak.

5.2.- Produktu bat baino gehiago (barazkiak, frutak, eztia, gazta edo ogia) ekartzen duenak produktu bakarria aurkeztu ahal izango du lehiaketara.

5.3.- Poteetan sartutako produktuak eta baserriko barazki nahiz fruta kontserbak erakusketa eta salmentarako bakarrik onartuko dira, baina horretarako nekazaritzako ustiategiaren

NOTA: Para todos los productos de la Feria valdrá la presentación de la etiqueta de Agricultura Ecológica.

En caso de realizar la solicitud por correo postal, se deberá enviar fotocopia de los documentos indicados.

4.- Adjudicación.

La adjudicación de los puestos se aprobará en el órgano competente, tras la propuesta del Departamento de Cultura.

Si las solicitudes no superaran los metros habilitados para la Feria, se adjudicará directamente. Caso de superarse se realizaría sorteo.

5.- Normas.

5.1. El Ayuntamiento decidirá la distribución de los puestos, que deberán estar instalados para las 9 horas de la mañana del 30 de noviembre y no se admitirá al que no lo esté para esa hora. Todos los puestos deberán estar recogidos para las 15 horas.

5.2. Quienes acudan con más de un producto (verduras, frutas, miel, queso o pan artesanal) podrán presentar un único producto a concurso.

5.3. Los productos embotados y las conservas caseras de verduras y frutas solamente podrán participar en las modalidades de exposición y venta, siempre y cuando dispongan de la tarjeta de

(esplotazioaren) txartela eta osasun erregistroarena izan beharko dituzte.

5.4.- Gozogintza-produktuak erakusketa eta salmentarako bakarrik onartuko dira. Ogiarekin batera aurkeztu beharko dira, eta gozogintzari dagokion osasun txartela izan beharko dute.

5.5.- Honako produktu hauek debekatuta daude: txarkuteria, haragikiak eta hestebeteak. Azokaren antolatzaileek ikuskaritza-lanak egingo dituzte, eta araren bat betetzen ez duen partaideari postua kentzeko agindua eman ahal izango diote.

5.6.- Udalak, azokan parte hartzen dutenei, edozein momentutan eska diezaiete dokumentazioa, 2. atalean ezarritako baldintzak bete egiten dituztela egiaztatzen duena hain zuzen ere.

6. Sariak.

Produktuen kalitateari, kantitateari eta horiek aurkezteko erari erreparatuko zaie sariak ematerakoan. Produktuen ugartasuna, aurkezpen erarik onenarentzako sariaren barruan hartuko da kontuan.

explotación agraria y del registro sanitario correspondiente.

5.4. Los productos de repostería sólo podrán participar en las modalidades de exposición y venta, siempre que concurren en la sección de pan y tengan el registro sanitario correspondiente a repostería.

5.5. Están totalmente prohibidos los siguientes productos: los embudidos, los cárnicos, y la chacinería. Responsables de la organización de la Feria realizarán las inspecciones oportunas, y podrán ordenar el levantamiento de cualquiera de los puestos, ante el incumplimiento de alguna de las presentes normas.

5.6. El Ayuntamiento en cualquier momento podrá solicitar a los participantes que presenten la documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos establecidos en el punto 2.

6. Premios.

Los premios se concederán a los productos del país en base a su calidad, cantidad y modo de presentación. La variedad de los productos será considerada dentro del apartado de premios al modo de presentación.

	BARAZKIAK VERDURAS	FRUTA FRUTA	EZTIA MIEL	ARDI GAZTA QUESO OVEJA	OGIA PAN
1. saria / 1º premio	180 €	180 €	180 €	180 €	180 €
2. saria / 2º premio	120 €	120 €	120 €	120 €	120 €

Aurkezpen onenarentzat, bi sari egongo dira: 1.a 150 eurokoa eta 2.a 90 eurokoa.

- Eibarko baserriarren artean, onenari 90 euroko saria emango zaio.
- Parte hartzaileen artean epaimahaiak 80 €-ko aipamenak bana ditzake.

Epaimahaia teknikariek, profesionalak eta produktuak ezagutzen dituzten adituek osatuko dute.

Epaimahaiak, hala baderitzo, sariren bat eman gabe laga dezake.

Habrà dos premios a la mejor presentación de entre todos los expositores: un primer premio de 150 € y un segundo de 90 €.

- Habrà un premio de 90 € para el mejor de los caseríos de Eibar.
- El jurado podrá repartir menciones de 80 € entre los participantes.

El jurado contará con técnicos, profesionales y conocedores de cada producto, nombrados por el Ayuntamiento de Eibar.

El jurado podrá declarar desierto alguno de los premios.